

ERASO SEXISTEN ETA SEXUALEN AURREKO GIDA

ZER DIRA ERASO SEXISTAK?

- **EMAKUMEEN* AURKAKO** jokabideak dira, emakume* izate hutsagatik.
- Erasoren horiek **EZ** dira ustekabekoak eta isolatuak, funtzio soziala dute: emakumeen* jokabidea **KONTROLATZEA**, eta espazio publiko eta pribatuaren mugikortasuna eta askatasuna **MUGATZEA**.
- Adibidez: mespretxatzea, iraintzea, umiliatzea, emakumeen* itxura fisikoa ebaluatzea edo kritikatzeko; **NAHI EZ DEN** kontaktu fisikoa, hala nola igurtzea edo ukitzea; jarraitzea, behin eta berriz saiartzeko edo jazartzeko; eta **DESEROTASUNA** eta/edo **BELDURRA** eragiten duten bestelako jokabideak.

PROTESTA edo **ERRESITENTZIA EZAK EZ** du adostasuna esan nahi, **ISILTASUNA EZ** da adostasuna. Desirarik **EZ** badago, **EZ** dago baimenik.

ZER DIRA ERASO SEXUALAK?

- Sexu askatasunaren eta pertsona baten **ONARPENAREN AURKAKO** edozein jokabide da. Sexu-harremanak **ADOSTASUNIK GABE** egin bada, **EZIN** da esan onarpenik egon denik.
- Erasoa indarkeriaz egin daiteke, baina **ADOSTU** edo **ONARTU GABEKO** harremana ere eraso da.
- **ADIBIDEAK**: Ukitzea, exhibizionismoa, nahaiaren aurka hurbiltzea, sexua izateko norbait presionatzea, bortxatzea...
- **EDOZEIN** emakumeri* gerta dakioke, **EDONON** eta **EDONOIZ**.

BORTXAKETAREN KULTURAK GUZTIOK INPLIKATZEN GAITU

- Bortxaketaren kulturak sexu-indarkeriarekin lotutako jarrerak **NORMALIZATZEA** dituzten praktika sozialak dira: emakumei* **EGOTZI** zaie beti halakoak gertatzearen errua, eta gizonei sinetsarazi zaie beren gorputzak **NAHIERARA** erabil ditzaketela.
- Bortxaketen prebentzioa ezin daiteke oinarritu emakumeak* hezitzearen indarkeriak saihesteko, baizik eta, **GIZONEZKOAK** egintza hauek **EZ** egiteko.
- Indarkeria mota honek **ERAIKITZEN** du emakume*-en **BELDURRA**: ez dira beldurrarekin jaiotzen, hau izatera erakusten zaie eta **IKASTEN** dute.

ZER EGIN DEZAKEGU OSTALARITZA ARLOAN INDARKERIA HONI AURRE EGITEKO?

- Emakumeentzako* **SEGURUAK** izango diren giro **ATSEGINAK** eta **ERRESPETUZKOAK** sortzea.
- Termino sexistak erabiltzen dituzten eta emakumeentzat* txiste iraingarriak kontatzen dituzten gizonen portaera **PUBLIKOKI SEINALATZEA**.
- Lokalean eraso sexistak edo sexualak gertatzen badira, **EZ** izan **PASIBOA**. Erasok ez dira ez kontu pribatua, ez bikote-kontua, **GUZTIOI** dagozkigu.

NOLA JOKATU ERASO BATEN AURREAN

- ✗ **EPAIKETAK** egin
Ez kendu garrantzia gertatutakoari eta ez egin biktimaren hitza kolokan jartzen dituzten galderak: "Ziur zaude?", "ez al zaude esajeratzen?", etab.
- ✗ **ERASOTZAILEA DEFENDATU**
Baliteke erasotzailea zure laguna izatea. Hala ere, sinesgarritasuna eman behar diozu biktimari. Lagun ona izateak ez du erasotzaile izatetik salbuesten: "Ziur zaude? Ezagutzen dut eta ez luke horrelakorik egingo".
- ✗ **BEHARTU** edo **DERRIGORTU**
"Salatu egin behar duzu", "zer gertatu da?", "nor izan da?", etab.
- ✗ **BAKARRIK** utzi
- ✗ **ERABAKIAK hartu GALDETU GABE**
- ✗ **Gertatukoari buruzko INFORMAZIOARIK ZABALDU**, aldeztu aurretik biktimari nola eragin liezaiokeen pentsatu gabe.

- ✓ **ENPATIA, ELKARTASUNA eta ULERMENA** erakutsi
Azal iezaiozu eraso bat ez daukala justifikaziorik eta berak egindako ezerk ez duela gertatutakoa eragin: "Zuk ez duzu ezer txarrik egin".
- ✓ **Manten ezazu JARRERA PAZIENTE ETA LASAIA**
Bere denborak eta erabakiak errespetatu: "Zu laguntzeko nago", etab.
- ✓ **Bere KONFIANTZAZKOA** den norbait **BILATZEN** saiatu berarekin egon dadin. Aurkitzen ez baduzu, nahi duen bitartean berarekin gelditu.
- ✓ **Bere IRITZIA ESKATU**, zerbitzuren batera deitu edo inolako beste pausuren bat eman **BAINO LEHEN**.

ERASO SEXUAL ETA SEXISTEN AURREAN EGIN BEHARREKOA

- Nahiz eta oraindik **EZ JAKIN** gertatutakoa salatuko duen edo ez, **AZALDU** iezaiozu garbitzen bada, jaten badu, arropaz aldatzen bada... frogak **EZABA** ditzakela. Normala da hori egin nahi izatea, zikin senti daitekeelako, baina **BERAK EZ DU EZER TXARRIK EGIN**.
- Behin hori azaldu diozunean, **ERRESPETATU BERE ERABAKIA**.



Leioa
BERDINTASUNA



*"EMAKUMEA/NESKA" diogunean, emakume zis-heterosexualez ez ezik, indarkeria matxistak jasan ditzaketan **IDENTITATE GUZTIEZ** ari gara.

ZER EGIN...

Eraso bat GERTATZEN ARI BADA:

- Neskari* ondo dagoen edo **LAGUNTZARIK** behar duen galdetu.
- Neska* bat **ARRISKUAN** dagoela uste baduzu, Leioako Udaltzaingora (94 400 8021) edo SOS Deiak/ Ertzaintza (112) deitu.

Neska* bat zuregana hurbiltzen bada erasotua izaten ari dela adieraziz:

- Barratik **ATERA**, posible bada norbaitekin, eta erasotzailea **URRUNDU**.
- Erasotzailea tabernatik **IRTETERA** gonbidatu.
- Erasotzailearen jokaeraren **AURKAKO JARRERA** erakutsi eta sustatu.
- **MUSIKA** kendu eta **ARGIAK** piztu gertatzen ari denaren berri emateko.

Erasotzaileak jarraitzen badu, joaten ez bada edo **AGRESIBO** jartzen bada:

- Egoera bortitzak **EKIDITU** eta Leioako Udaltzaingoiari (94 400 8021) edo SOS Deiak/ Ertzaintza (112) **DEITU**.

Neska* bat zuregana hurbiltzen bada eta esaten badizu **SUMISIO KIMIKOAGATIK** biktima dela uste duela.

- **DEITU** SOS Deiak 112 zenbakira edo eskura dauden osasun-zerbitzuetara kaltetutako nesken sintomei erantzun egokia eman diezaioten.
- Leioako Udaltzaingoiari (94 400 8021) edo Ertzaintza (112) **DEITU**.